

## Eskolan ere, ingurumenaren alde

■ Eskola Agenda 21aren konpromiso-akta sinatu dute Eusko Jaurlaritzak, Lasarte-Oriako Udalak eta herriko bi ikastetxeek, Landaberri Ikastolak eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak

Asteazkenean, Ana Urchueguia alkateak, Jone Altuna Hezkuntza saileko arduradunak, Marisa Zubiri Ingurumen saileko buruak, Arantza Etxarri Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Josu Garmendia Landaberri Garai-koetxea ikastolako zuzendariak eta Koru Goikoetxea Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko zuzendariak Eskola Agenda 21 ekimena aurrera eramateko konpromisoa hartu zuten.

Konpromiso-akta sinatu baino lehen batzar aretoan zeuden gaztetxoek Arantza Etxarri, Jaurlaritzako ordezkariaren hitzak adi entzun zituzten. "Ura gai duen proiektuan lanean zaudete dagoeneko. Oraingoz sentsibilizazio lana egin duzue ikastoletan. Orain Udalera gatoz, alkateak bere oniritzia eman eta konpromiso aktak sinatzera," azaldu zuen.

"Asko poztzen gara ikasle eta Udal berriak proiektua sartzen direnean. Horrek, ingurumenaren alde jende gehiago ari garela esan nahi baitu. Tanta bakoitzak putzua egiten duela badakizue," gaineratu zuen.

### Eskola Agenda 21

Ikasleak ikastetxearen eta udal-erriaren ingurumen-kalitatean

eragina duten arazoetan parte hartzea, erabakiak hartzea eta inplikatzeko ohitzea helburu duen programa da Eskola Agenda 21.

Hitzarmen hau sinatuta Euskadiko gazteek eta haurrek bere hiriarri eta garapen jasangarriari buruzko gauzak esateko eta ekarpenak egiteko dituztela onartzen da.

### Eginkizunak

Askotarikoak dira akta izenpeztzen duten agente ezberdinek hartzen dituzten konpromisoak.

Ikastetxeek, Eskola Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum- eta hezkuntza-proiektuetan barne hartuta abiarazteko konpromisoa hartzen dute.

Era honetara, ingurumen-batzordeak eratuiko dituzte eta garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte.

Lasarte-Oriako Udalari dagokionez, Tokiko Agenda 21 programaren zatitza hartuko dute Eskola Agenda 21.

Honetaz gain, eskolako partaidetza-foro bat ezarri eta sustatuko du, hiri-ingurumena aztertzeke eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko.

Gainera, kanpoko aholku-



Lasarte-Oriako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta herriko ikastetxeek Eskola Agenda 21eko helburuak betetzea espero dute.

laritza baten edo laguntza-entpresa baten bitartez, proposamenei erantzun eta ikastetxeei lagunduko diete.

Aurretik aipatutako guztian laguntzeko, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren konpromiso eta laguntza izango da.

Honek aholkularitza didaktikoa ziurtatuko du Ingurume-

narekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiaren bidez. Era berean, parte hartzen duten irakasleen prestakuntzaz eta ikasmaterialen eskaintzaz arduratuko da.

Diru-laguntzak ere eskainiko ditu ikastetxeentzako urteroko deialdien bitartez eta Udalarekin sinatu beharreko hitzarmenen bidez.

Azkenik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bermatuko du Garapen Jasangarriko Hezkuntza lehenastuzko programatzat tratatzea.

Horretarako, irakasleen lanean esparrua eta ordutegia Eskola Agenda 21 programaren koordinazio- eta berrikuntza-eskakizunetara egokitzeko bidea emango du. •



Somotoko ikerketa batzordeari buruzko PSOEren proposamen berria atzera bota zuen oposizioak /3

### KIROLA /6

LOKEko atletak eta Olatz Yabenek dominak eskuratu zituzten Gipuzkoako txapelketetan



Kontzentrazioak egin dituzte Atsopakarreko langileek beraien lan baldintzak salatzen /4

## MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

## Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

**Neure kabuz**



**Kultura ez da errenta**

Urtea hasi eta zutabegin-tzan, hitzen igeltsugintzan nolabait esateko, hasi behar berriro. Lanean, azken batean. Hitzak eta gogoetak lanabestzat hartuta, baina lanean. Igeltse-  
ro baten moduan. Ez gehiago eta ez gutxiago. Zutabeak egiten. Beraz, buruko makineriari olio eman eta martxan jarri berriro. Zertan aritzeko, baina? Tira, hurbilen dudan esparrutik hasiko dut urtea; kulturatik, alegia.

Gipuzkoako Aldundiak 2010. urterako onartutako aurrekontuetan beherakad-  
arik handiena jasango duen departamendua Kul-  
tura eta Euskararena izango da, %24 gutxiago. Bestelako instituzioetan -udaletan eta abar- antzeko padezido. Dirudienez, gerrikoa estu-  
tzeko garaian, ez zementu-  
gintza, kulturgintza da lehenengo kaltetua. Ez da sorpresa, baina mingarria gertatzen zaigu batzuo-  
i. Kulturak gure artean bete-  
tzen duen paperaren isla baina ez da, azken batean. Kultura aisialdiaren osagarri moduan ulertzen da, den-  
bora-pasa moduan, ikuski-  
zun moduan. Apaingarri moduan beste helburuetar-  
ako, turistak erakartzeko adibidez, hotelak betetzeko eta pintxoak saltzeko. Horra Donostiak Europako Kultur Hiribururako aurkez-  
tutako kandidatura kasu. Merkatari-  
en ikuspegia azkenerako: kultura errenta iturri gisa. Baina kultura ez da errenta. Kultura geure burua eta mundua ezagu-  
tzeko eta garatzeko tresna da. Geure mugak gainditu eta pertsona osoago izateko. Gizarte helduagoa.

**Pablo Barrio**

**Zorion-agurrak**



**Unai**

Zorionak maitia! Ondo pasa eta 4 muxu pottolo etxekeon partetik, Oier, aitaxo eta amatxo.



**Borja**

Zorionak Borja zure 9. urtebetzean. Ondo pasa aita, ama eta Daviden partetik



**Iker**

Zorionak zure 1. urtebetzean eta muxu handi bat. Aitona eta osabaren partetik.



**Felix**

Zorionak aitaxi! Noah, Garazi eta familiaren partetik.



**Montero, Macho, Esteban, Kontxi eta Maritxu**  
Zorionak!! Mitxelingo lankideen partetik. Orain gozatzera!



**Isidoro eta Sole**

Zorionak zuen 49. Urtemugan. Seme-alaben eta billoben partetik. Muxu handi bat!



**Johana**

Zorionak erregina! 8 muxu handi Saioa, aita, ama eta familiaren partetik. Ondo pasa!



**Saioa**

Zorionak printzesa. Lau muxu handi familia guztiaren partetik.




**Oihana**

Zorionak printzesa. 9 muxu pottolo amatxo eta familiaren partetik. Ondo pasa



**Larraitx**

Zorionak printsesita! 9 muxu handi eta ondo pasa. Endika eta familia guztiaren partetik.



**Aitzol eta Arantza**  
Zorionak! Ze uste zenuten ba? Hemen ez da inor libratzen! Pastak eta tortila goxoak zeuden! Amatxo Aran, muxu handi bat etxekeon partetik!

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Biko-tearentzat egokia. Harremanetarako zenbakia: 657 708 866.

• Lasarten logela bat alokatzen da pisu konpartitu batean. Intere-saturik daudenak 600 612 085 telefono zenbakira deitu dezake-te.

**Lan-eskaintzak**

• Ingeleseko magisteritzako 3. mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehe-nengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelesa edota beste ikasgai batzu).

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com  
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

\* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943372874/635720017 Urtri.

• Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen naiz. Telefono zenbaki honetara deitu mesedez, 648 458 523.

• "Interno" edo orduka lan egiteko eskaintzen naiz. Telefonoa: 676 188411

• Orduka lan egiteko eskaintzen naiz. Telefono zenbakia: 630 438571

**Jaiotzak**



Unai Lizarraga Encinas, urtarrilaren 4ean  
Uxue Asensio Rodriguez, abenduaren 25ean  
Ainara Lanceta Recalde, abenduaren 21ean  
Nerea Odriozola López, abenduaren 19an  
Gorka Mindegia Plaza, abenduaren 16an  
Akira Arroyo Alonso, abenduaren 15ean

Hilario Giraldo González, urtarrilaren 6an 73 urte zituela  
Tomas Otamendi Uribe-Echeverria, urtarrilaren 6an 81 urte zituela  
Valentina Alba Azpeitia, abenduaren 31ean 89 urte zituela  
Jesusa Aguirre Arana, abenduaren 27an 84 urte zituela  
Nieves Amondarain Zumeaga, abenduaren 26an 91 urte zituela  
Julia Ibañez Fernández, abenduaren 24ean 88 urte zituela  
Juan Marcos Avila, abenduaren 19an 70 urte zituela  
Miguel Merchan Diaz, abenduaren 12an 88 urte zituela

**Heriotzak**



Salvador Lucas Carrasco, urtarrilaren 8an 55 urte zituela

**Guardiak**

**Ostirala, 15**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Larunbata, 16**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Igandea, 17**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Astelehena, 18**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteartea, 19**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Asteazkena, 20**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Osteguna, 21**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFako Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Udalaren datuen arabera, 8.000 pertsona baino gehiago igaro dira Michelingo frontoitik parkea egon den 12 egunetan.

## Gabonetako ekitaldi guztien balantze ona egin du Udalak

### Gabonetako Haur Parkeak zortzi mila bisitari baino gehiago izan ditu hamabi egunetan

Gabonetako festak eta jarduez betetako egunen ondoren, Gazteria eta Festetako saileko arduradunak Jesus M. Zaballosek irakurketa egin du.

Gabonetako Haur parkea izan da Eguberrietan antolatu diren jardueren guztietatik erakargarriena. Lasarte-Oriako Udalaren datuen arabera, 8.000 pertsona baino gehiago igaro dira Michelingo frontoitik parkea egon den hamabi egunetan.

"Egoera orokorra kontuan izanik, ahalegin ekonomiko bat eginenez, GHPren aurrekontua igo du aurten 40.000 eurotik 42.500era," gogoratu du Jesus Zaballosek, baita parkeak urtarrilaren 4ra arte atek irekiak izan dituele ere.

"Horrenbeste jende biltzen duen jardueren hau sustatu

nahi izan dugu, helduentzako Urte Zahar Gaueko berbena bertan behera uztea ekarri badu ere," adierazten du Zaballosek.

Era berean, "urtero joateko ohitura zutenei barkamena eskatzeko aprobetxatu nahi dut, baina lehentasunezkoztat jo dugu Gabonetako Haur Parkea, urtetik urtera duen arrakastagatik," jarraitzen du Zaballosek eta Festak saileko buruak.

Lehenengo egunetan sortutako errenka luzeek, ondoren sartzeko txanda ezberdinak ezartzea ekarri zuten. "Zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz sortu ziren ordu eta erdiko txandak eta neurri horrekin konpondu ziren leku arazoak," azaltzen du Gazteria saileko buruak.

Eskertzak eta iradokizunak

izan dituztela ere aipatzen du, "zenbait herritarren posta elektronikoak jaso ditugu jardueren eskertzen eta, aldi berean, datorren urterako proposamenak egin dizkigute, adibidez, lasarteoriatarrek ez direnei gehiago kobratzea sarreran. Eta kontuan izango dugun neurria da hori."

Honez gain, parkea kudeatu duen enpresa esleipiduna eta antolakuntza era berriak izan dira. "Parkeko elementu berriek oso harrera ona izan dute," azpimarratzen du Zaballosek.

#### Errege Magoak

Erregeen desfileari dagokionez, "eguraldiak joan den urtean baino gehiago lagundu zuten eta haurrek gozatu ahal izan zuten ibilbidearekin," adierazten du.

"Bertako erosotasunerako, Erregeek Atsokabak egotzara bisita egin zuten goizean, eguneko azken orduan izan beharrean. Festa giroan, aiton-amonak guztiek beren oparia jaso zuten," gaineratzen du zinegotziak.

#### Eskertza

Azkenik, eskerrak ematen dizkie, batetik jardueretan parte-hartzaile izan direnei eta bestetik jardueren guztiak aurrera eramatea posible egin duten guztiei. "Izan ere, beraien laguntza gabe ez zen posible izango," adierazten du. •

#### ZOKKETA

### Ogi-Goxoko 1.500 euroek badute jabea

Pablo Mutiozabal kaleko Ogi-Berri okindegiak zuen 1.500 eurotako saria Jose Angel Busto Iglesias herritarrek eskuratu du. Abenduan zehar txartelak banatu ditu okindegiak eta diru-saria urtarrilaren 6an burutu zen "El niño" loteria nazionalako zozketa zorbakiarekin, 58588, bat egiten zuten txartelak lortuko zuten. Gauzak honela, astelehenean jaso zuen onuradunak, Jose Angel Busto Iglesias bere saria eta zertan gastatuko duen badaki gainera. •



Jose Angel Busto Iglesiasek astelehenean jaso zuen saria semearekin batera.

#### ATERPEA

### Gabonetako produktu sortaren irabazleak

Urtarrilaren 7an Aterpea elkarteko dende Gabonetako produktu sorten zozketa burutu zuten. Irabazleak honako hauek dira: Lentezia Mayan Loli Urkia; Lizarri Optikan Pilar Urdia; Aritza mertzerian Marga Pino; Mitxelín Kooperatibian M<sup>o</sup> Luisa Tejeria; Goxogi okindegian Joseba Muga; Ekain liburudendan Gotzon Huegun; Kalkosen Fernando Murgiondo; Bideo Lagunakén Consuelo Iglesias; Abreu bazarrean Jara Etxeberria; Nogues jantzigintzan Julian Bereciartu; Iturbe zapatatadendan Maite Irazusta; Sukoa burdindegian Josefa Montero; Ormazabal loredendan Goyi Diaz; Urruzola mertzerian Elena Aburuza; Zumaburu liburudendan Mertxe Gonzalez; Olmi mertzerian Joaquina Iñorbe; Martinez Multimedial Mariano Aguado eta Biyona iturgintzan Carlos Azpeitia. •

#### SARI-BANAKETA

### Erregio-etxeen arteko marrazki lehiaketa

Gipuzkoako Erregio etxeen elkarteak urtero argazkien eta Gabonei buruzko marrazkien lehiaketa antolatzen du. Aurten, Lasarte-Oriako Ama Guadalupe Extremadurako etxeak 50 bat lan aurkeztu ditu lehiaketa honetara.

Partehartzaile gehienak abenduaren 3an, Donostiako Galicia etxean burutu zen sari banaketara hurbildu ziren. Baina Lasarte-Oriako talde txikiak ezin izan zuten bertara joan eta lehengo larunbatean, urtarrilaren 10ean, Extremadura etxean eman zitzaizkien sariak.

Demetrio Hurtado elkarteko kultura arduradunak, partehartzaile bakoitzari bere izena zuten oroirak banatu ziren. Honez gain, epaimahaiak eskaini zituzten zortzi akzesitako bi Lasarte-Oriako Jon Susin eta Haizea Alvarez gazteen lanek lortu zituzten eta hauek sari berezia ere izan zuten, margoak eta litxarrerria zeramatzen kaxa. •



Eguraldia lagun, Erregeen kabalgata festa giroan burutu zen.



Irudian herriko parte-hartzaileak beraien sari eta oroirarekin.

# Udal-batzarra bertan behera geratu zen

## PSOEn mozioa ez zen aurrera atera oposizioaren aurkako bozkengatik

A tzo burutu zen Udal Batzarrean gai nagusia talde sozialistaren proposamena izan zen, Kooperaziorako laguntzak ikertzeko batzorde bereziaren xedea aldatu eta abenduaren 15ean udalbatzarrean erabakitako gainarako puntuak berresteko.

Baina honen aurretik, EAJ, Hamaikabat, Ezker Abertzalea, EB eta LOHP-k mozio alternatiboa aurkeztu zuten. "Abenduaren 15ean aurkeztutako mozioa da, baina aldaketa batzuekin," aipatu zuen Estitxu Alkortak.

Honetan, Somotoko dirulaguntzak ikertzeko Batzordea eratzea eta honek 6 hilabete irautea eskatzen zuten. Eta, era berean, Batzordeak jarraitu beharreko lan egitasmoa finkatzen zuten. PSOE eta PPren bozkek atzera bota zuten proposamen hau.

LOHP-ko ordezkariak, Ana Isabel Prietok "Somotora bideratu diren dirulaguntzak ez dira era egokian banatu" adierazi zuten eta batzordeari lan egiten uzteko eskatu zion Udal Gobernuari.

### Ez zen aurrera atera

Ondoren, PSOEek bere mozioa azaldu zuten. Abenduaren 15ean aurkeztu ez zuten mozioa zen hau eta, honen bidez, Kooperazioko Batzorde berezia Udalak ematen dituen era guztietako diru laguntzen Jarrapen Batzordea izatea proposatzen zuten.

Mozioa ez zen onartu oposizio osoak aurka bozkatu baitzuten. Oposizio taldeek



Mozio alternatiboa aurkeztu zuen oposizioak, baina ez zen aurrera atera.

adierazi zuten aurpegia garbitzeko era izan da, auditoria eta ikerketa atzeratzeko modua.

Herriko elkartei eskainitako diru-laguntzak eta Somotora bidalitakoak ez alderatzeko ere eskatu zioten. "Triste da, guzti honengatik, herriko taldeak kaltetuak izatea," adierazi zuen Ezker Abertzaleko ordezkariak.

Eta horiek Batzar berezirik ez dutela behar ere gogoratu zuten, "paralizatuak dauden laguntzak ez dira herrikoak, kooperaziokoak dira," azpimarratu zuen EAJko Estitxu Alkortak. Era berean, EBak laguntzen legea bete eta Lasarte-Oriak araudia egin dezala eskatu zuten.

PPko Jose Angel Encinasek gogoratu zuten ez dela hilabete pasa Batzorde berezia sortzeko eskatu zela eta zerikusirik handirik ez duen mozioa aurkeztzen zuela PSOEek, honen

xedea aldatzeko. "Kooperazioa da ikertu behar dena eta hori lehen bait lehen martxan jartzeko eskatzen dut," adierazi zuten.

PSOEek oposizio taldeen manipulazioa salatu zuten. Eta kooperazioko laguntze gain, egun beste laguntza batzuk ere paralizatuak daudela aipatu zuten, "izan ere, 2003ko legea jarraitzeak kalte egingo die herriko taldeei."

"Horregatik, gu prest gaude elkarte horiei laguntzeko, egunean nola egon edo laguntzak nola lortu ditzaketan aholkatuz," gaineratu zuen Iñaki Mugika alkate ordeak.

Honen harira, idazkariak Batzar Berezian aurkeztutako idazkiak eta honen aldaketa ere izan ziren hizpide. Eztabaidaren ostean, puntu hori batzarrean aurrerago argitu behar zela adostu zuten.

Alkateak hitz hartu eta EAJko Estitxu Alkortari bitan arreta deitu ostean, Udal Batzarra bertan behera uztea erabaki zuten oraindik eztabaidatzeko puntuak geratzen ziren arren.

### Prentsaurrekoak

PSOEek asteartean eskaini zuten prentsaurrekoan mozioa aurkeztearen zergatia azaldu zuten eta, era berean, 2003ko legea jarraituko dutela jakinarazi. "Ikuskatzailearen txostenean laguntza guztietan akatsak daudela esaten zen, oposizioak nahi zuten zatia irakurri zuten bestea alde batera utzita," adierazi zuen Zaballosek.

"Arazo hori konpontzeko, legea jarraituko dugu eta teknikoek zorrotz egingo dute lan. Horrek laguntza batzuk ez ematea ekarriko badu ere" jakinarazi zuen Iñaki Mugikak.

Era berean, elkartei laguntzeko ahalegin guztiak egingo dituztela ere jakinarazi zuten.

Bestalde, oposizio talde batzuk, EAJ, Hamaikabat, Ezker Abertzalea, EB eta LOHP prentsaurrekoak eskaini zuten Batzarraren ostean.

Honetan, PSOEek udalbatzarean egindako saiakera, abenduaren 15an hartutako erabakia atzera botatzearena, lotsagarritzat jo zuten taldeek. "Somotoko auzia ikertzeko batzordea bidean uzten saiatu dira, Udalak ematen dituen era guztietako diru laguntzen Jarrapen Batzorde bihurtuz," adierazi zuten.

Eta Somotoko laguntzak ikertzen jarraituko dutela ere azpimarratu zuten. "Ez gara geldirik egongo. Eskuartean ditugun agiriak lerroz lerro aztertu beharko ditugu, eta txosten tekniko gehiago eskatu, azkenean egoki diren erabakiak hartzeko, eta Udal honetan egon daitezkeen erantzukizun tekniko eta politiko guztiak argitzeko."

### Alkatearen azalpena

Ana Urchueguia alkateak azaldu zuten Udalbatzarra bertan behera uzteko arrazoiak, Alkorta zinegotziaren iritziek sortutako eteteak izan zirela. Hori argi utzi nahi izan zuten: "Azken batzarretan etengabe egiten dituen keinu eta txandaz kanpoko azalpenak" errespetu falta iruditzaren zailkio alkateari, izan ere, bere iritziz, "EAJko ordezkariak hitz egiten duenean errespetuz entzuten baitiogu". •

## Kale-agerraldiak Atsobakarreko lan baldintzak salatzen

Astelehenean hasi ziren kontzentrazioak egiten eta gaur dute azken eguna. Era honetara, Atsobakar zahar egoitzeko erizaintza langile eta garbitzaileek bere egoera salatu dute.

Bere zerbitzuak kudeatzen dituen enpresak, Clece ez ditu Udalarekin adostutako baldintzak betetzen, hau da, soldata baxuagoa ordaintzen die eta, gainera, jai egun batzuk eta baimenak kendu dizkiete.

ELA eta UGT sindikatuetakordezkariak laguntza izan zuten astelehenean lehenengo kontzentrazioan, baita asteartean Udalaren aurrean egiten zuten ere.

Horetan, Clece enpresaren eta Gizarte Zerbitzuak buru den Lourdes Acevedoren aurkako oihuez gain, negoziatzaioaren aldekoak ere entzun ziren.

### Udalaren erantzuna

Honen harira, Lourdes Acevedok, Gizarte Zerbitzuak buruak adierazpenak egin ditu.

"Lehiaketa publiko bidez 2009an Clece enpresari esleitu zitzaizkion egoitzaren laguntza zerbitzuak. Honetan, aurrekontua handitzeaz gain, langile gehiagoren kontratazioa onartzen zen," azaltzen du Acevedok.

"Langileekin eta sindikatuekin hitz egin nuen eta enpresa salatzea Udalaren eginbeharra ez dela adierazi nien. Izan ere, haiek salatu behar baitute enpresa," adierazten du.

"Enpresarekin bilerak egin eta eskutitzak idatzi dizkiot subrogazioa betetzeko eskatuz," gehitzen du Acevedok.

Langileek presio neurriak erabiltze ulertzen du, baina

"egoitzako bertakoak bere xedea lortzeko erabili nahi dituen orenen aurka agertuko naiz," aipatzen du.

"Adinduei ematen zaien laguntza kalitateri baino, diruari lehentasuna ematen diogula esatea, faltsua da," adierazten du Gizarte Zerbitzuak buruak.

"Atsobakar zahar egoitzan Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu katalogoak ezartzen duenak baino langile gehiago dugu. Honetaz gain, esfortzu handia egin dugu langileen kopurua handitzeko eta berrikuntza lanetan ere inbertsio handia egingo da," azpimarratzen du Acevedok.

Eta "honek guztiak, beraz, adinduek Udalarentzat duten garrantzia eta lehentasuna adierazten dute," amaitzen du. •



Asteartean Udaletxe aurrean bildu ziren langileak bere egoera salatzen. Asteazkenean, berriz, Villa Mirentxu Gizarte Zerbitzuak egoitzaren aurrean.

# Erraustegiari buruzko inkestaren tranpa

■ Irakurketa interesatua salatu dute Ezker Abertzaleko zinegotziek. ■ Datuen arabera ez omen dago jendeak onartzen duela baieztatzerik. ■ Donostiarren erantzunek pisu gehiago izan dute.

Erraustegiari buruzko inkestaren irakurketa interesatua egin dutela salatu dute Ezker Abertzaleko zinegotziek. Abenduaren 23an zenbait komunikabidetan inkestaren emaitzak jakinaraztean emandako ondorio nagusia Zubietan eraiki nahi den erraustegiak gizartearen onarpena duela adierazten bazen ere, Lasarte-Oriako ezker abertzalearen ustez ondorio hori ez da erreal eta ez du zilegitasunik. Hori frogatzeko hainbat elementu jorratu dituzte Joxe Goikoe-xea, Itziar Iartza eta Txanpi Baztarrrika zinegotziek.

JON ALTUNA

**B**atetik ,metodologia kritikatuko dute Lasarte-Oriako Ezker Abertzaleko zinegotziek, Donostiarren erantzunek pisu gehiago eman zaielako hauek erraustegitik urrun bizi eta proiektuaren inguruko kezka eta interes gutxi izan arren. Inkesta 510 pertsoneri telefonoz egindako galdeketa batean oinarritu da (201 donostiar, 156 Lasarte eta 153 Usurbildar) baina gero datuak modu ponderatuan tratatu dira, eta beraz, donostiarren erantzunek balio gehiago izan zuten.

Txintxarrira bidalitako salaketa idatzian azaltzen denez, badakite, Zubietan, Añorga eta Ibaetako bizilagunek proiektuari 3,5eko nota jarri diotela eta Donostiako batz bestekoa 7,1ekoa ateratzen bada, Donostian baina erraustegitik urrun bizi direnek eman diote nota ona eta gainera gehienak dira.

Gainera, Ezker Abertzalearen ustez, "inkesta hartutako laginaren tamaina ez da inondik inora gizartearen errepresentagarria eta beraz, gizarte osoari bertatik ateratzen dituzten ondorioak egoztez ez da zilegi, eta egiten dutenak manipulazio saiakeratan dabilta".

Erraustegiaren sustatzaile eta babesleek egindako manipulazioaren beste adibide bat emandako informazioa da, salaketaren arabera: komunikabideetan behin eta berriro adierazten zuten informazio gehiago dutenak direla indar handiagoz erraustegiaren alde daudenak, baina artikuluetan informazio asko edukitzea "energia sortuko dela eta prozesuaren hondakinak batzuk berrerabiliko direla" baieztatzea mugatzen zen.

## Toxikotasuna

Eta hain juxtu Ezker Abertzaleak dio batetik energetikoki urriak edo eskasak direla errauste plantak eta bestetik prozesuaren hondakinak berrerabiltzeko oso toxikoak direla. "Eskoria eta erraustehoriek porlanarekin nahastu eta azpiegituretako piezak eraiki nahi dituzte baina hori mundu guztian atzera botatzen ari dira, toxikotasunak denbora luzez irauten baitu eta erosoaren ondorioz toxikotasuna azalatu egiten baita. (Alemanian errepideetan erabili eta orain hainbat kilometrotako ingurune kutsatuak dituzte)".

Gainera gogor salatzen du Ezker Abertzaleak informazio hain mugatua ematea, hau da, energiaren sorkuntza eta hon-



Ezker abertzaleko zinegotzien ustez, atez ateko zabor bilketa sistema da erraustegiaren alternatiba.

dakin berrerabilera aipatzea soilik: "Non geratzen dira beharko diren zabortege toxi-koak, kostu ekonomikoki itzela, birziklapenaren atzerakada, gutxi batzuen aberaste nahia, Gipuzkoa osoko hondakinak garraio masiboa, osasunean eragingo dituen kalteak, inguruneak jasango dituenak eta garrantzitsuena, herritarren hitza, urteetan adierazitako aurkako jarrera, alegia?"

## Urteak informazio eske

Ezker Abertzaleak dio urteak daramatzala jendarteari informazioa ematearen alde lanean, bere ustez, informazioa behar bezala emango balitz aurkako jarrera askoz indartsuagoa izango zelako. "Horren adibide dira Usurbilen egin zen herritarren parte

hartze prozesua eta Hernanin martxan dena. Lan asko eta batez ere borondate politikoa behar beharrezkoak dira prozesu horiek martxan jartzeko".

Ezker Abertzaleak dio Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak beste era bateko politika darabilteela: "Ikusi besterik ez dago herritarren eskaera, mobilizazio eta ekimenei zer nolako harrokeri eta inpunitatez erantzuten dieten. (adibide garbia da 35.000 sinadura Jaurlaritzak 5 minututan zaborruntzira botatzea)".

Bestalde, Ezker Abertzaleko ordezkariak ez dute ulertzen nola baieztatzen duten artikuluan gizarteak erraustegia onartzen duela ehuneko 70,8ak erraustegiaren eragina osasunarentzat kaltegarria dela uste baldin badu. "Guztiz

kontrajarriak dira bi baieztapenak, are gehiago, hondakinak tratatzeko sistema moduan erraustegia baztertu beharra argi eta garbi adierazten du, izan ere, gizartearen osasuna babestea baita agintari orenen derrigorrezko bete-beharra".

Azkenik Ezker Abertzaleak Atez Ateko Bilketa Sistema aldarrikatzen du hondakinak gairi irtenbidea emateko. Euren iritziz, Usurbilgo esperientziak eta mundu osoan dauden beste esperientzia batzuek sistema hau herri, hiri eta egoera desberdinetan aplikagarria dela frogatzen dute.

Beraz Lasarte-Oriako zinegotziek gaiaz ondo informatzeko eskatzen dute eta ondoren herritarren iritzia kasu egiteko. •

## BERTAKO FABRIKAZIOA

Tripakiak- Saltxitxak  
Txistorra  
Odolkia- Solomo ontzutua  
Basurde burua  
Etxeko txorizoa  
Solomoa baratxuritan- Baserri pateaa



## ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451  
Lasarte-Oria

## ELEKTRIZITATEA ARREGU!



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 16**

**10:00etan**, Ostadar-Lengokoak (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.  
**11:30etan**, Ostadar B-Real Sociedad B (Infantil txikiak, txapelketa fasea) Michelinen.  
**13:00etan**, Ostadar-Hernani Real Tanger (I. Jubenila, kopa) Michelinen.  
**14:45etan**, Ostadar-Trintxerpe (Partehartze infantilak) Michelinen.  
**17:45etan**, Ostadar-Euskalduna (Jubenila Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.  
**16:00etan**, Texas Lasartearra-Intxurre (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

**15:30etan**, Danena-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Elbarrena, Zizurkilen.

**Igandea 17**

**10:00etan**, Ostadar-Intxaurdi (Emakumezkoen Liga) Michelinen.  
**11:30etan**, Ostadar-Dunboa (Gorengo Erregionala) Michelinen.

**10:00etan**, Ostadar-Euskalduna (Alebinak) Usabal, Tolosan  
**12:00etan**, Orioko-Ostadar (I. Kadetea, igoera fasea) Mendibeltz, Orion.  
**16:00etan**, Hernani-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I I) Zubipe, Hernanin.



**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 16**

**17:45etan**, Aldaz H.K.-Ceramicas Nogales Zarautz (Nazional B maila) Kiroldegian.

**Igandea 17**

**11:00etan**, ISU Leihoak-Eskolapiok (Gipuzkoako Liga) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**Michelingo areto-futboleko gunea**

**Ostirala 15**

**20:30etan**, Viña del Mar-Naiban

**Larunbata 16**

**09:15etan**, IOB H.K.-Ainhoa  
**10:15etan**, Izarra-Morrison  
**11:15etan**, Izkia-Siglo XX

**12:15etan**, Tragoxka-Buenetxea  
**13:15etan**, Obelix-Jalai  
**15:00etan**, Lekuona Menallargi  
**16:00etan**, Ori krist.-Goiz Argi  
**17:00etan**, Biyona-Okela

**SASKIBALOA**

**Larunbata 16**

**16:00etan**, Jalai-Cafes Aitona (Gizonezkoen seniorra) Kiroldegian

**PILOTA**

**Larunbata 16**

**16:00etan**, Hernani 2-Intza I (Eskuz binaka, infantilak) Michelinen.  
**16:00etan**, Mundarro I-Intza 2 (Eskuz binaka, infantilak) Michelinen.  
**16:00etan**, Azkoitiko 2-Intza I (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Azkoitian.  
**16:00etan**, Zumaia I-Intza 2 (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Azkoitian.

**ATLETISMOA**

**Larunbata 16**

**Egun osoan**, Landaberri BHI taldea *Atletismoarekin jolasean* txapelketaren lehenengo edizioan parte hartuko dute, Zaragozan.  
**Egun osoan**, LOKEko atletak Beterano, junior, jubenil eta kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Donostian.

**Igandea 17**

**10:00etan**, LOKEko atletak Beterano, junior, jubenil eta kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Gasteizen.

**IGERIKETA**

**Larunbata 16**

**09:30etan**, Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteak Hernaniko XII. sarian parte hartuko dute, Hernanin.

**JUDOA**

**Larunbata 16**

**10:00etan**, LOKEko Leire Zubizarreta, Iñaki Elizalde, Asier Sagasti, Esteban Martinez eta Mario Garridok Junior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Bekorrota kiroldegian, Lezon.

# Espainiako txapeldun bilakatzeko borrokan

■ LOKEko atletak eta Olatz Yaben lasarteoriatarrek dominak eskuratu zituzten Gipuzkoako txapelketan  
 ■ Asteburu honetan, Euskadiko txapelketako lehia dute



Landaberriko BHI taldea, Maria Eugi, Saioa Olasagasti, Ane Galardi eta Patricia Prieto, Zaragozan lehiatuko dira.

Landaberriko BHIko ikasleak diren Maria Eugi, Saioa Olasagasti, Ane Galardi eta Patricia Prieto asteburu honetan Zaragozan jokatu den *Atletismoarekin jolasean* txapelketaren lehenengo edizioan parte hartuko dute.

Abenduaren 12an, Donostian jokatu zen Gipuzkoako ikastetxeen arteko sailkapen saioan lasarteoriatar gazte hauek izan ziren garaileak.

Oskar Goikoetxeak entrenatzaileak azaldu digunaren arabera, neska taldeak ez zuen sailkapena espero, puntuak lortu eta honi esker asteburu honetan, urtarrilaren 16 eta 17an Zaragozan antolatutako finalean egoteko aukera eskuratu zuten.

Orotara, taldekide bakoitzak bi proba egin beharko ditu; 50 metro, 50 metro hesi, luzera jauzia, 800 metro eta pisu jaurtiketaren artean aukeratu.

Guztiak, taldekide moduan lehiatuta errelebo proba ere egin beharko dute.

Entrenatzaileak adierazi digunaren arabera, "gure asmoa ez da txapelketa irabaztea. Neska hauek lehiaketa zer den ikastea nahi dugu eta lehiatzeko beste era bat ezagutzeko. Izan ere, Zaragozan haiek bakarrik egongo dira pistean, entrenatzaileak harmailetan egongo gara."

**Gipuzkoako txapelketa**

Lehenengo ostirala eta larunbatean, kadete, junior, jubenil eta

beteranoen Gipuzkoako txapelketa burutu zen Anoetako belodromoan.

Bertan, LOKEko atletak egon ziren lehiaketa horietako batzuk, domina ekarri zuten herrira.

Unai Imazek junior mailako 800 metroko lasterketan eta Irati Larrañagak jubenil mailako altuera eta luzera jauzian urrezko domina eskuratu zuten.

Gaizka Ormazabalek junior mailako 400 metroko lasterketan eta Leire Amianok kadete mailako pertika proban, berriz, bigarren postua lortu zuten.

Bestalde, Antoniano taldean dabilen, Olatz Yaben herritarrek ere domina eskuratu zuten 600 metroko lasterketan, urrezkoa.

Emaizta hauei esker, asteburu honetan Donostian eta Gasteizen jokatu den Euskadiko txapelketan parte hartuko dute LOKEko atletak eta Olatz Yabenek.

**Beste lehiaketak**

Bestalde, Diario Vasco-ren babesa duen Txallengeko emaitzak argitaratu ziren eta Irati Larrañaga LOKEko atletak bederatzigarren postua eskuratu zuen jubenil mailan.

Era berean, herriko atletek Eguberrietan antolatutako hainbat lasterketan parte hartu dute.

Esate baterako, abenduaren 26an, Donostian burutu zen XXIX. Hondartzako Krosa, Miguel Uriarte orogarria lasterketan, besteak beste, Pili Bodegas lasarteoriatarrek garaipena eskuratu zuen 4.000 metroak 15 minutu eta bigundu bateko denborarekin.

Ostadarreko atletismo taldeak, berriz, Gasteizko maratoi erdian parte hartu zuen, abenduaren 20an.

Eta urteari era osasuntsuan agur esatko, Donostiako San Silbestrean ere herritar ugari parte hartu zuen. •



Gasteizko maratoi erdian parte hartu zuten Ostadarreko korrikalari batzuk.

Egunero

**Erakusketa**

ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du Max Mbaye senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.

**Erakusketa**

Kutxaren babesa duen NATURAREN ARGAZKILARIAK 2009 lehiaketako argazkiak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Igandea, 17

**Zinea**

DOS CANGUROS MUY MADUROS filma ikusgai haurrentzako zinea atalaren barruan. Sarra, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Ostirala, 22

**Antzerkia**

MATXINEN YO SERÉ EL NUMBER ONE kafe antzerkia eskainiko da lehenengoz Gazteria sailak eta Xpression kultur elkarteak antolatutako Gazte emanaldietan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan, GAZTELANIAZ.



Musika afroa Jalgin gaur

LE WALO izeneko taldeak jam sesioa eskainiko du gaur Jalgin. Talde hau senegaleko eta iparraldeko musikariez osatuta dago. Max Mbaye saxojoleak lideratzen duen taldeak musika afroa eta funka eskainiko du.

Max Mbaye artista senegaldarrak Artea Afrikan izeneko margo erakusketa ipini du Jalgin, eta margolari aparta izateaz gain, musikari trebea dela erakutsiko du gaur gauean Jalgin bertan.

GAUR, OSTIRALA 15  
JALGIN, 23:00ETAN  
SARRERA DOAN

Igandea, 24

**Zinea**

PLANET 51 filma eskainiko da haurrentzako zinea sailen. Sarra, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 27

**Ipuin-kontalaria**

KORUKO ZURUTUZAK ipuin bat irakurriko die liburutegira hurbiltzen diren haur gutzietan. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ

Osteguna, 28

**Zinea**

EL LUCHADOR filma ikusgai izango da Okendo Zinema Taldeak antolatutako osteguneko zinean. Sarra, 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 29

**Antzerkia**

"KLOWNTUZ! MENDIA!" lana eskainiko du Kili Kolo Taldeak. Emanaldi hau abenduan bertan behera geratu zen eta orain eskainiko dute. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean, EUSKARAZ.

**Eskutitzak**

**Barkatu eragozpenak**

Lerro hauek hasi nahi dituzuzten ez bakarrik Andatza plazaren inguruan bizi direnei, baizik eta baita kaleko ekintza ezberdinek eragin dituzten zaratarengatik kaltetuta sentitu direnei. Urtean zehar Oriako bizilagunen kexak jaso ditugu Hip-Hop eguna dela eta, edo frontoian egindako garagardo azokarengatik; Zumaburuko kexak Semblante Andaluz elkartearen erromeriarengatik edo San Pedroetako berbenengatik; Hipodromo etorbidekoen txosnengatik; Ola kalekoen kexak San Pedro jaietako barrakengatik; Andatza plazakoen kontzertu eta berbenengatik; eta, noski, Okendo plazako bizilagunenak, izan ere, bertan egiten dira kaleko ekintza gehienak. Orokorrean, kexak gure plaza eta kaleetan egiten diren jarduerak gehienengatik, bai kirola-koek edo bai kulturakoak. Jakin badakigu eragozpenak sortzen dituztela eta horrengatik saiateren gara kokapenak dibertsifikatzen. Horren eredu izan da Multimusikala Andatza plazan, joan den urtean Okendon izan zena.

Ziur naiz bizilagunak ez daudela horrelako jarduerak antolatzearen kontra, eragozpenak egonda ere, izan ere, horrela azaldu didate nirekin hitz egin duten askok. Beraiekin bat egiten dut pentsatzean udalerrirantzako onuragarria dela jarduerak egotea, udal elkarteak indartzen direlako. Horrengatik, herritarrek eta elkarte ezberdinek jakitea nahi dut Udalaren jarraeraz zuzentzea izango dela errespetua ziurtatzeko. Ezaugarri hauek ekintza bat antolatu nahi duen elkarteak fidantza jarri beharko du Udalean eta, ezarritako ordutegiak, gaitasun neurriak edo bestelakoak betetzen ez badira, zigortuak izango dira fidantza ez bueltatuz eta etorkizuneko baimenak ukatuz.

Barkamena eta pazientzia eskatu nahi diet bizilagunei, izan ere, programatzen diren ekitaldiak puntualak dira. Espera dugu neurriek beren efektua izatea eta modu horretan eragozpenak txikiagoak izatea etorkizunean.

Jesus Maria Zaballos  
Gazteria eta Festak saileko  
lehendakaria

Liburutegiko ordutegia



Astelehenerdik ostiralera  
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

**Oharrak**

**Landaberri Antzerki Eskolako zozketa**

Santo Tomas egunean, Landaberri Antzerki Eskolako erriren zozketa egin zen, eta hauek izan ziren zenbaki saridunak: 1. Sarirako 1004; 2. Saria 4504; 3. Saria 1306; 4. Saria 4306; 5. Saria 4381. Saria eskuratzeko, 943 371 448 telefono zenbakira deitu. Urtarrilaren 21a arte egin daiteke. Zorionak sarituei!

**Zabaletakoak Txuri Urdinera doaz**

Bihar larunbata, Zabaleta auzokoek irteera antolatuta dute Txuri Urdinera. Joan nahi duenak 10:00etan auzoko plazan egon behar du. Bazkarirako izena eman dutenek, jakin Xirimirin dela.

**Oztabide auzo elkarteak bilera**

Arrambide eta Oztaraneko bizilagunei jakinarazten zaie, bihar larunbata, goizeko 11:00etan, Oztabideko loka-

lean, Oztaran ikastetxearen atzekaldean, bilera dagoela.

**Euskal Inauterien konpartsa**

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHIko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitzete parte hartzera!

**EHNarekin arazorik izan badituzu**

EHNarekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitzete posta elektronikoko honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com



**Saharari laguntza**

Sahararen Aldeko Euskal Karabana hasi da lanean "Piztu Itzaropena" lelopean eta urtarrilaren 22ra bitartean elikagai eta konpresak bilduko ditu Lasarte-Oriako ikastola eta eskoletan, super-merkatuetan eta Emakumeen Zentro Zibikoan. Añorga eta Usurbilgo ikastoletan eta herri honetako dendetan ere jarriko dira biltzeko ontziak eta baita, hurrengo urtarrilaren 23an, Urbil merkatal-gunean ere.

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri T X I N T X A R R I aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Gaur arratsaldean erabakiko da aurtengo inauterietan Ttakunekok jantziko duten mozorroaren gaia. Iaz zirkoa izan zen.

# Inauterietako kalejira antolatuko du berriro Ttakun-ek otsailak 13an

Gaur, ostirala, bilera egingo da Iñigo de Loiola kaleko gazte lokalean, 17:00etan, mozorroen gaia hautatzeko

Iaz Ttakunek lehenengo aldiz antolatu zuen inauterietako kalejira eta proposamenak sekulako arrakasta izan zuenez aurten berriro egingo dela aurreratu dute kultur elkarteko arduradunek. Ehundaka lagun mozorrotu ziren iaz zirkoan eta zirkoako pertsonaietan oinarrituta.

Hain zuzen ere, gaur ostirala, arratsaldeko Setan Iñigo de Loiola kaleko gazte lokalean bilera egingo da aurtengo mozorroa erabakitzeko. Inauterietan mozorrotzeko gogoia eta kalejiran ateratzeko asmoa

duten herritar guztiak daude bileran parte hartzera gonbidatuta. Joaterik ez dutenek, proposamen edo iradokizunik baldin badute, Ttakun elkarte-ko bulegotik pasa daitezke.

Inauterietako kalejira eta ondorengo dantzaldiak erantzun oso ona izan zuen iaz.

Lehenengo aldiz elkarrekin egin zuten kalejira zenbait elkarteek. Zentro Zibikoko emakumeak lorez mozorrotu ziren, Erketzekoak hawaiarrez eta guraso batzuek ijitoz. Hauekin batera hainbat lagunek zirko handi bat osatu zuten Ttakunen proposamenari jarraituz. •

*Iaz koordinatu zuen Ttakunek lehen aldiz Inauterietako kalejira. Aurten berriro egingo da otsailaren 13an*



Zirkoako hainbat pertsonaia ikusi ziren iaz mozorrotuen kalejiran.



Adin guztiakok hartu zuten parte kalejiran.

# Amaraun LUDOTEKA

Urtarrilaren 21ean, **Zatoz!**  
18:00etan ipuin kontalaria

Matrikulazioa zabalik!

Ttakun 943 371448 • aisia@ttakun.com • www.ttakun.com

